



**2012KO OTSAILAREN 10EKO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko otsailaren hamarrean, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2012ko urtarrilaren 13an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Hiribarren eta Elosegiko bidegorriari dagozkion bi faktura, bien artean ZORTZI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA LAUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (8.271,91 €) batzen dutenak, bidegorriaren diru-laguntza zuritzeko behar zirela eta, presa zutenez, Alkatezaren ebazpen bidez onartu ziren, eta orain Tokiko Gobernu Batzar honetara aurkezten dira honek onarpena berretsi dezan.

Tokiko Gobernu batzarrak bi faktura hauen onarpena, aho batez, berretsi egiten du.

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren gainontzeko fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2011ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 40 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA ZORTZI MILA ETA BERROGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (48.054,67,-)takoa eta 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena baita ere, LAUROGEITA SEI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO ETA LAUROGEITA BAT ZENTIMO (86.369,81 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- POSTA ZERBITZUAREN ESLEIPENA.-**

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko abuztuaren 2ko akordioan jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2011ko azaroaren 7ko foru aginduaren bitartez, SDAD. ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A. (IFZ.: A83052407) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez X11032 zenbakiko espedientea "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzeko esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta zerbitzua interesatzen zaion neurrian, 2011ko



otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2012ko otsailaren 6an emandako txostenaren arabera, posta zerbitzua erabiltzeko beharra dela eta, proposatu du posta zerbitzuaren kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak izandako posta zerbitzuaren erabilera zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko bederatzita mila laurehun eta berrogei (9.440 €) euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.

Hori dela eta, Sektore Publikoetako Kontratuen 30/2007 Legearen 182. artikulari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua SDAD. ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak onartzen ditu:

**LEHENENGO.-** "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez posta zerbitzuaren esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X11028) SDAD. ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS S.A. enpresari (IFZ.:A83052407) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan. Akordioaren oinarritzko atala da honekin batera doan Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, S.A. enpresak 2011ko irailaren 22ko datarekin aurkeztutako "III.eranskina – xehetasun orria- eskaintza ekonomikoa, bere espedientean dagoena.

**BIGARREN.-** Aurtengo ekitaldiari dagokion 9.440 euroko gastua SDAD. ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A., N.I.F.: A83052407, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea, 1 0000.222.121.00.02 kontusailaren kargura.

**HIRUGARREN.-** Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

#### IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

##### Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 09-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzua astean ordu erdi gutxiago ematea onuradunak berak hala eskatu duelako.

##### Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 12-01-001 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea urtarriletik ekainera. Ematean zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 12-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarriletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.



- 12-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125 € ematea urtarriletik abendura. etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 46,25 € ematea urtarriletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %50 da.

Drogomenpekotasuna, garraiorako diru-laguntza.-

- 11-14-001 zbk.dun esped.: garraiorako diru-laguntzatik baja ematea urtarriletik gizakia helburura ez joateagatik.

Nagusilan Elkarteari diru-laguntza.-

Nagusilan bolondres taldeari 2011 urteko gastuei aurre egiteko 84,90 € ematea.

Presoen familientzat garraiorako diru-laguntza.-

- 12-13-01 zbk.dun esped.: preso dagoen bere senitartekoa ikustera joateko bidaiarako hilean 58,25 € ematea.

- 12-13-02 zbk.dun esped.: preso dagoen bere senitartekoa ikustera joateko bidaiarako hilean 86,50 € ematea.

V.- KULTURAKO DIRU-LAGUNTZAK .-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Oin Arin dantza taldeari Maridomingi jantzia egiteko.-

Oin Arin dantza taldeari 2011ko eguberritako Maridomingi jantzia egiteko tela erosketa eta jostearen kostua, berrehun eta laurogeita sei euro eta laurogeita hamar zentimo (286,90 €) takoa Oin Arin dantza taldeari ordaintzea.

Goierriko Euskal Eskolari Gerriko Ikerlan Bekarengatik diru-laguntza.-

Goierriko Ikerlan Bekaren 2011ko diru-laguntzari dagokion bigarren zatia ordaintzea, bi mila eta bostehun (2.500 €) euro.

Gerriko Liburudenda, S.L.ri abenduko euskal liburu eta diska azokarengatik diru-laguntza.-

Gerriko Liburudenda, S.L.ri 2011ko abenduaren 16, 17 eta 18an egindako euskal liburu eta diska azokan saldutako kopuruaren %15aren diru-laguntza ematea, bi mila sei-ehun eta hogeita hamazazpi euro eta berrogeita hemezortzi zentimo (2.637,58 €).

Plazako dantzen ikastaroa.-

Oin Arin dantza taldeari 2011ko azarotik abendura bitarteko plazako dantzen ikastaroaren antolaketarengatik bostehun eta hogeita bost (525 €) euroko diru-laguntza ematea.



Mintzalagun proiektuari diru-laguntza.-

Mintzalagun proiektuari 2011ko ekainetik abendura bitarteko epeari dagokion bost mila (5.000 €) euroko diru-laguntza ematea.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

